


Bilboaldako mendiak ezagutzen

Zailtasun ertaineko ibilbideak



Urriaren 20an: San Antonio (Etxebarri) – Kate Zaharra (Bilbo) 10 km. Erraza

Ibilaldi honetan Bilboko hego-ekialdeko mendiak, hau da, Artxanda, ingurua, bisitatuko dugu. Bilbo guztia goitik ikusteaz batera, Txorierriko ikuspegi paregabea izango dugu. Elorritxueta (Vivero) atsedean lekutik igaro, eta gizakiaren eragina nabaritutako dugu Ganguren mendi tontorra zapaltzean.



Urriaren 27an: Basozelai (Basauri) – Kobetamendi (Bilbo) 15 km. Zaila

Bigarren ibilaldian Bilboko gailur esanguratsu bi bisitatuko ditugu: Malmasin eta Pagasarri, bilbotarren mendi kutunena. Aho zabalik uutziko gaituzte ibilbide honetan topatuko ditugun atsedean lekuek eta Bilboko ikuspegiak.



Azaroaren 10ean: La Reineta (Trapagaran) – La Arboleda 13 km. Erraza

Laurehun metrotik gorako bailara honetan ikusiko ditugun lekuek liluratu egingo gaituzte. Urte askotan burdina hobiaz josita egon zen inguruak eraldatu egin da, baina oraindik baqditu hainbat altxor ostenduta.



Azaroaren 17an: La Arena hondartza (Muskiz) – Santurtzi 12 km. Erraza

Itsas mailatik hasita, gerrate zibilean kostaldea defenditzeko gudariak zituzten bateriek geure esku izango ditugu. Kantauri itsasoaren ikuspegi ezin hobeak edukiko dugu ondoren, Serantes mendia ren tontorretik.



Informazioa eta testuak: Jokin Berrio

Bilboaldako mendiak ezagutzen

Zailtasun ertaineko ibilbideak



Ibilaldi hauekin, Bilbori dagokionez daukagun aurreiritzia aldarazi nahi genizueke. Bilbo ez baita A-8 autopistatik edota Txorierriko bide-saretik joanda ikusten duguna: porlana, adreilua, autoak... Hobe esanda, ez da hori bakarrik.

Denon ahotan dagoen esaldiak dioenez, azken urteotan asko aldatu da Bilbo hiria. Bizkaiko hiriburua inguratzen duten mendi eta txoko bazterrek, berriz, jakin dute historiari zor diotena ederto babesten: karlistadak, gerra zibila, burdina-meategiak...

Izan ere, Bilbo inguruak badauka ibiltarioi zer eskaini!

En esta ocasión, queremos conocer otro Bilbao, más allá del cemento, la construcción, el tráfico y las aglomeraciones. Porque Bilbao es mucho más que eso.

Quién no ha reparado en el cambio que la ciudad ha vivido estos últimos años. Pues bien, sus alrededores han sabido conservar su deuda con la historia: las guerras carlistas, la guerra civil, la actividad minera...

¡Los andarines y andarinas disfrutaremos de Bilbao y su entorno!

Autobus zerbitzua izango da, Nafarroa Zentrotik, ibilbidearen hasiera puntuetara mugitu eta amaiera puntuetatik etortzeko.

Irteera ordua, goizeko 8:30

Aldaketa!!! Gudari kaleko autobus geltokia (DIA supermerkatuaren parean)

Servicio de autobús, con salida a las 8:30

!!!Modificado!!! Parada de autobús de la calle Gudari (al par del supermercado DIA)

Izen-abizenak:.....

Adina: Telefonoa:..... e-posta:.....

Zein etapa egin nahi duzu?

Urriaren 20an: San Antonio-Kate Zaharra

Urriaren 27an: Basozelai-Kobetamendi

Azaroaren 10ean: La Reineta-La Arboleda

Azaroaren 17an: La Arena-Santurtzi

Izen-ematea ordaintzeko kontu-zenbakia: (BBK) 2095-0023-50-9107020298

Ibilaldi 1 edo 2: 6 €

3 edo 4 ibilaldi: 10 €